

# *ikertzen*

MONDRAGON  
UNIBERTSITATEAREN  
IKERKUNTZA  
GEHIGARRIA

**ms**  
Mondragon  
Unibertsitatea

2020KO NEGUA  
11. ZENBAKIA



# Economía circular: un modelo de producción y consumo adaptado a los nuevos tiempos

LA ECONOMÍA CIRCULAR SE ESTÁ ERIENDO COMO UN MOTOR CLAVE PARA ABORDAR LOS DESAFÍOS QUE ESTÁ AFRONTANDO EL SECTOR INDUSTRIAL A NIVEL GLOBAL, INCLUYENDO EFICIENCIA EN EL USO DE RECURSOS Y MITIGACIÓN DEL CAMBIO CLIMÁTICO ENTRE OTROS ASPECTOS RELEVANTES. LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR TRABAJA PARA ADAPTAR LOS NUEVOS MODELOS DE ACCIÓN AL ENTORNO INDUSTRIAL DEL PAÍS VASCO Y ESTRUCTURAR LA INVESTIGACIÓN SOBRE LOS MISMOS, CON EL OBJETIVO DE CONSOLIDAR UN GRUPO PROPIO ESPECIALIZADO.

La Escuela Politécnica Superior lleva trabajando la economía circular desde el año 1999, año en que se lanzó un curso experto de gestión del medioambiente dirigido a empresas que estuvo en funcionamiento durante 10 años. De forma paralela, en el año 2000 se empezaron a impartir en el ámbito académico módulos de estudio relacionados con economía circular, concretamente en las ingenierías industriales y ambientales. A partir de entonces, la Escuela Politécnica Superior fue dando pasos continuos, incluyendo la creación de un aula de ecodiseño en 2014 o la implantación de al menos una asignatura relacionada con la sostenibilidad en todos los Grados. Todo este trabajo derivó en 2014 en la creación del Grado en Ecotecnologías Industriales que se imparte en Campus Orona Ideo, además de ofrecer diversos cursos formativos para personas desempleadas con el objetivo de facilitar su integración en empleos verdes. Además, Mondragon Unibertsitatea tiene como objetivo a medio plazo la consolidación del grupo especializado en economía circular y de doctorandos trabajando en la materia.

La experiencia acumulada durante veinte años de trabajo ha colocado a la Escuela Politécnica

Superior en una situación privilegiada para afrontar nuevos proyectos de investigación; algunos de ellos están en proceso de ejecución.

## Proyectos de visión europea

El trabajo que la Escuela Politécnica Superior está llevando en el campo de la economía circular está teniendo su reflejo en el ámbito europeo. Por ello, además de los proyectos locales, se están llevando a cabo dos proyectos que responden a convocatorias de la Unión Europea. En el primero de ellos, denominado NICE (Circular Economy and New Industrial organisations), Mondragon Unibertsitatea participa junto a la Universidad Politécnica de Milán, TU Braunschweig y Grenoble INP, y tiene como objetivo desarrollar un entorno educativo con vista a 2020-2022, ofreciendo a los profesionales la posibilidad de certificarse oficialmente. El segundo de ellos, Circu-City, se basa en adaptar al contexto europeo una práctica gaming desarrollada en Australia por la Universidad de Queensland con la que se busca plantear un desafío sobre la aplicabilidad de la economía circular en ciudades. Las organizaciones asociadas para llevar a cabo este proyecto son Ghent University, MEERI y ECODOM.

## Proyectos regionales

### NETCIRCULAR+

El objetivo principal del proyecto NETcircular+, financiado por la Diputación Foral de Gipuzkoa (Programa para promover el fortalecimiento competitivo, la sostenibilidad y la colaboración del tejido empresarial de Gipuzkoa), es la creación de un juego serio, práctico y entretenido, en formato físico y digital, que facilite a las empresas del sector primario, industrial y servicios identificar, evaluar y priorizar oportunidades estratégicas para implementar y gestionar modelos de negocio y cadenas de valor circulares y sostenibles de forma eficiente y efectiva. El nombre del juego NETcircular+ se inspira en el concepto NET POSITIVE con el que se busca que las empresas generen un impacto social, económico y ambiental neto positivo en relación a los impactos

La Escuela Politécnica Superior lleva trabajando la economía circular desde el año 1999.



**EL PROCESO**  
Mediante distintos proyectos de investigación, la Escuela Politécnica Superior busca avanzar en el campo de la Economía Circular.



negativos que pueden contribuir. Este proyecto complementa al proyecto CircularTRANS, aporta una herramienta empresarial estratégica basada en gaming para facilitar el desarrollo de nuevos modelos de negocio “circulares y sostenibles”. El juego vincula principios de economía circular con los objetivos del desarrollo sostenible, considerando tendencias industriales y legislativas a nivel vasco y europeo. El juego NETcircular+ consta de varios niveles de juego (en base a los conocimientos, expertise y progreso de los jugadores) y diferentes etapas de análisis, incluyendo una etapa de análisis del estado actual de la empresa en relación a la economía circular y los ODS 2030 y otra etapa de identificación, evaluación y priorización de oportunidades de innovación en modelos de negocio. El juego estará disponible en versión física y digital y busca ser a su vez una

herramienta de formación y capacitación de profesionales en la empresa.

**Mondragon**  
Unibertsitatea tiene  
como objetivo a medio  
plazo la consolidación  
del grupo especializado  
en economía circular y  
de doctorandos  
trabajando en la materia.

#### REMANEX

Proiektu hau 2018an jarri zen martxan Eusko Jaurlaritzak remanufaktura bikain bati buruzko gida bat osatzeko ateratako lehiaketa

publiko bati erantzunez. Deialdi honetara Goi Eskola Politeknikoak Alemaniako IPA Fraunhofer Remanufacturing unibertsitatea-rekin batera aurkeztutako proiektuak Ihobe-ren kontsezioa jaso zuen, proiektuaren muina gida estandarizatu bat garatzea izanik. Proiektuaren exekuzio fasean hiru enpresa aztertu dira, hauen egunerokoan hobetze aukerak identifikatuz. Motorlan, WAT Direcciones eta Talleres Altube izan dira aztertutako enpresak, eta CAF, Siemens Gamesa, Urola, Emica Bombas, Dlaser eta RALPE enpresak aldiz prozesuaren gainbegiratzeko taldea osatu dute, remanufaktura gida estandarizatu bat osatzeko asmoarekin. Behin bukaera fasean egonik, REMANEX proiektuari jarraipena eman nahi zaio, Goi Eskola Politeknikoak beste enpresa batzuk aztertu eta IPA Fraunhofer Remanufacturing-ek hauek balioztatuz, nazioarteko zigilu homologatu bat garatuz.

#### CIRCULARTRANS

Enpresa industrialek Ekonomia Zirkularreko printzipio eta estrategiak aplikatzeko plataforma digital batengarapenean oinarritzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako proiektu hau. Proiektu honek MONDRAGON Corporation, Tecnun eta Garapen Agentzien elkarlana eta babesa du. Enpresaren egungo egoeraren diagnostiko bat abiapuntu harturik, enpresa bakoitzaren errealitateara egokituko diren proiektu edo akzio planak diseinatu eta garatuko dira, ekonomia zirkularrerantz enpresak pausoak eman ditzan. Proiektu horiek aurrera eramateko ekintzak, Ekonomia Zirkularrakematen dituen soluzio ezberdinetan oinarrituko dira, ekodiseinua, remanufaktura, zerbituzazioa, birziklapena edo mantenu-konpontzea adibidez. Hori dela eta, Goi Eskola Politeknikoko taldeak proiektuen garapenean laguntzeaz gain, eremu ezberdinetako formazio paketeak eskainiko ditu. Gauzak horrela, proiektua martxan jarri zen urtean, 2018an, 8 enpresek hartu zuten parte, eta 2019an kopurua 20 enpresatara igotzea, hauetako hamarri laguntza zerbitzua emango zaielarik.

# Automozioaren errealitate berri baten bila

MIKROMAK PROIEKTUAK AUTOMOZIOAREN SEKTOREA GAUR EGUNGO PRODUKZIO PROZESUETARA EGOKITZEA BILATZEN DU, IKERKETA ZIENTIFIKOA INDUSTRIARA APLIKATUZ. GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK, TECNALIAK ETA CIE AUTOMOTIVE-K ELKARLANEAN GARATUTAKO PROIEKTUAK EMAITZA ESANGURATSUAK UTZI DITU.



Goi Eskola Politeknikoa, Tecnalia eta CIE Automotive-n ikerketa zentroak osatzen dute Mikromak proiektua garatzen ari den taldea, Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen Elkartek proiektueta-ko bat izanik CIE Automotive-k planteatzen duen arazoan gaur egun kotxeetako sorkuntzarako erabiltzen diren materialak hautsiko diren ala ez detektatzen duen software baten existentzia falta dela dio. Goi Eskola Politeknikok eta Tecnaliak jakintza zientifikoaren bitartez egoera hau gainditu behar dute, horretarako CIE Automotive-n baliabide materialak baliatuz. Ikerketa hau ikuspegi makroskopikotik (orainarte kontuan hartzen ez ziran aldagaiak aztertuz) edo makroskopikora estrapolazioa egin aurretik mikroestruturan fokua jarritz. 2018an martxan jarritako proiektuak bi urtetako iraupena izan du eta bere

balio nagusia Europan erabiltzen den industria teknologia Euskadi mailan aplikatu eta garatzea izan da.

## Sektorearen garapenean eraginez

Automozioaren sektorean erresistentzia altuko altzairuak gerroz eta erabiliagoak dira, material hauen erabilerak kotxeek gutxiago pisatzea ahalbidetzen duelarik erregaien kontsumoa murrizten baita. Testuinguru honetan, Mikromak proiektuaren bitartez gaur egun oso erabiliak diren dual phase materialen portaera aztertzea bilatzen da. Horretarako prozesu esperimental ezberdinak egin dira Deakin University-k utzitako mikroskopiak eta nanoinbentadore bat erabiliz. Behin fase esperimentalak gaindituta modeloak martxan jarri ziren, ikerketa industria errealitatearekin uztartuz.

# Kotxeen transmisio elementuen fabrikazio prozesuak berritzen



GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK 'FATECO' PROIEKTUAREN LIDERGOA HARTU DU. EUROPAR BATASUNEKO 'RESEARCH FUND COAL AND STEEL' PROGRAMAREN BARNEAN KOKATZEN DA PROIEKTU HAU, AUTOMOZIO SEKTORERAKO FABRIKAZIO PROZESU BERRITZAILEAK GARATZEA HELBURU DUELARIK, TRANSMISIO ELEMENTUEN BIZITZA ERAGINKORREAN ERAGINEZ.

Automozioaren sektorean kotxeen emisioak murrizteko hauen pisua gutxitzea da gaur egun erronka nagusienetako bat, beti ere hauen segurtasuna bermatuz. Beharrian honi erantzunez, FATECO proiektua koordinatzen dihardu Mondragon Unibertsitateak. FATECOren helburu nagusia kotxeen errendimendua hobetzea da, iproiektuan garatuko diren fabrikazio prozesu berritzaileen bidez ibilgailuen transmisio elementuen erresistentzia mekanikoa eta portaera tribologikoa hobetuz. Gainera, erabilitako prozesuekin ohiko taladrinak guztiz ezabatu ahal izango dira (edo ekologikoak direnengatik ordezkatu), prozesua guztiz ekologikoa bilakatuz. Proiektuaren beste helburu nagusi bat fabrikazio prozesu berritzaileen parametroak eta lortutako piezen erresistentzia zein portaera tribologikoa erlazioatutako dituen sare neuronalak garatzea da. Sare neuronal honek prozesu berritzaile

leak optimizatzeko modeloak garatzea ahalbidetuko du.

## Nazioartean ikertzen

FATECO proiektu europarra da, zenbait partner bertan elkartzen direlarik. Goi Eskola Politeknikoa da bertako liderra eta koordinatzailea, eta bi ikerketa taldek parte hartzen dute: "Errendimendu Handiko Mekanizazioa" eta "Datuen Analisia eta Zibersegurtasuna" taldeak. Hauez gain Sidenor-eko ikerketa eta garapen saila agertzen zaigu Euskal Herriko beste partner industrial bezala, hau materiala garatzeko arduraduna izango da. Bestalde, CR FIAT enpresak (Italia) aztertutako diren kasuak proposatu ditu, Università di Bolognari (Italia) erresistentzia mekanikoko saiakuntzetan parte hartuko du, Samputensilli enpresak (Italia) fabrikazio prozesuak garatuko ditu eta Saint Etienne-ko unibertsitatealotuta dagoen Enise enpresak (Frantzia) ere prozesu ezberdinak garatuko ditu.

# Energia garraiatu eta jasotzeko modu berriak

ENERGIA SAILEKO IKERKETA TALDEAK ROAD2DC PROIEKTUA GARATU DU, SARE ELEKTRIKO BERRIEN EZAUGARRIAK AZTERTU ETA HAUEK KUDEATZEKO METODOAK PROPOSATZEKO HELBURUAREKIN. ENERGIA SISTEMA ERALDATZEN ARI DEN HEINEAN GENERAZIO ETA KONTSUMO MODU BERRIAK IKERGAI BILAKATU DIRA.



Sistema elektrikoaren paradigma sakonki aldatzen ari da. Energia berriztagarriengorakada sistemaren garapena eskatzen du, aldakorak diren iturri energetiko hauek era adimendunean kudeatu behar direlako energia sistema egonkor bat bermatu ahalizateko. Horretarako bihurtgailu elektronikoaren garrantzia adierazten du Goi Eskola Politeknikoko taldeak, hauek kontrolatuz egoera egonkorren aurrean erantzun daitezkeelako.

Zentzu honetan, *Road2DC* proiektuaren baitan bihurtgailu elektronikoaren presentzia nabarmena daukaten sistema elektrikoaren ezaugarriak aztertu dira erreminta matematikoen bitartez. Hortaz gain, mota hauetako sistemak egonkor mantentzeko bihurtgailu hauentzat kontrol eta energia kudeatzeko teknika ezberdinak proposatu dira. Ikerkuntzara bideratutako Elkartek proiektua dugu *Road2DC*, Goi Eskola Politeknikoak koordinatu eta Deustu-

ko Unibertsitatea, Ikerlan, Tecnalía eta Ingeteam-en partaidetza estuarekin garatu dena.

## Korrante zuzena, etorkizuneko korrantea

Orain dela urte gutxi batzuk arte korrante alternoak (ac) korrante zuzenaren aldean (dc) abantaila argiak eskaintzen zituen, baina elektronikaren garapei esker gaur egun korrante zuzenaren erabilera interesgarria bilakatu da hainbat aplikaziotan sistemaren efizientzia hobetzeko. Izan ere, gure ohiko bizimoduan ezinbestekoak diren gailu gehienak korrante zuzenarekin elikatzen dira, baina estandarrik garatuta ez dagoenez zirkuitu gehiago gehitzen zaizkie korrante alternoko saretik elikatu ahal izateko. *Road2DC* proiektuak, bere izenari omen eginez, korrante zuzenaren ezaugarriak aztertzea izan du helburu, etorkizuneko sistema elektrikoaren funtsezko atal bat izango baitira. AC sistema elek-

triko guztiak dc-enganik ordezkatzeko ezinezkoa den arren, bi sare mota horien abantailak baliatu daitezke sare ac/dc hibridoak garatuz. Zentzu honetan, ikerketa taldeak sare hibridoaren garapenean sakondu du etorkizuneko sistema elektrikoaren efizientzia eta egonkortasuna hobetzeko helburuarekin.

## ERAGILEAK

Korrante zuzenaren arloan EUskal Herriko zenbait erakunde eragile ari dira lanean Mondragón Unibertsitatearekin batera

Road2DC proiektuan bihurtgailu elektronikoaren presentzia nabarmena daukaten sistema elektrikoaren ezaugarriak aztertu dira erreminta matematikoen bitartez.

# IoT dispositiboetan aplikatuko den informazioaren bila


VARIOT PROIEKTUAK INTERNET OF THINGS-EN SEGURTASUNAREN ALORRA INDARTU ETA HONEN GAINEAN DAGOEN INFORMAZIOA SORTZEA ETA OSATZEA DU HELBURU. ZENTZU PUBLIKOIA DUEN HEINEAN, JASOTAKO INFORMAZIOA PROZESATU ETA ZABALTZEA DA HELBURUA, KALITATEZKO IOT ZERBITZU BAT BERMATZE ALDERA.

IoT gailuen segurtasunari buruzko informazio baliagarria sortzeko helburuarekin jarri da martxan VARIOT proiektua (Vulnerability and Attack Repository for IoT) Europako Batzordearen CEF (Connecting Europe Facility) finantzazio-programa dela medio. Arlo publikora bideratuta egonik, IoT segurtasunari buruz jaso daitekeen informazioa prozesatu eta hain publikatzea da proiektuaren xede nagusia, beste ikertzaile batzuk, administrazioak edo CERT-ak erabilgarri izateko. Horretarako, Europear Data Ataria erabiliko da euskarrigisa, bertan publikatutakoak sistemen segurtasunean eragin zuzena izan dezan bilatuko delarik.

GoiEskola Politeknikoak VARIOT taldea osatzen duten bost partner-etako bat da. Proiektua Poloniako ikerketa zentro nagusia den NASK erakundeak koordinatzen du, Shadowserver Fundazioa (Herbehereak), SMILE erakundea (Luxemburgo) eta IMT-TSP unibertsitateak (Paris) taldea osatuz.

## Eraso digitalei erantzuteko tresna

IoT-a industria, hiri, osasun zentru eta etxeetan erabiltzaile mailan ezarrita dagoelarik, erasotzaileentzat helburu mamitsuabilakatuda, dagoeneko eraso bortitzak pairatuz. Hauen artean esanguratsuen Mirai malwarea dugu, IP ezberdinetako milioika kamera kontrolatuz Dyn



IoT-a industria, hiri, osasun zentru eta etxeetan erabiltzaile mailan ezarrita dagoelarik, erasotzaileentzat helburu mamitsuabilakatuda, dagoeneko eraso bortitzak pairatuz.

hornitzaileko DNS sareak kolapsatzea lortu zuena, erabiltzaile mailan WhatsApp edo Netflix bezalako aplikazioak joko kanpo utziz.


Erasoen aurrean indartsu izateko ahalik eta informazio gehien jaso eta partekatu ahal izatea ezinbestekoa da, eta horregatik VARIOT proiektuak datu base garrantzitsu bat sortzea du helburu. GoiEskola Politeknikoak, NASK eta IMT-k ikerketa maila areagotzen duten bitartean, Shadowserver Fundazioak eta SMILE-ren MISP erramintak Gipuzkoako ZIUR edo Euskadi Basque Cybersecurity Center bezalako erakundeei datu base honetan oinarritutako zerbitzuak emango dizkiete.

**TALDE LANA**  
Mondragon Unibertsitateko talde bat IoT-ak eskaintzen dituen aukerak aztertzen dihardu

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

## Una nueva tecnología para separar exosomas

EL PROYECTO BG18 DESARROLLADO POR LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR Y CIC BIOGUNE HA DESARROLLADO UNA NUEVA TECNOLOGÍA QUE GENERA LA MIGRACIÓN DE DIFERENTES COMPONENTES EN FASE LÍQUIDA MEDIANTE LA TERMODIFUSIÓN. DE ESTA MANERA, SERÁ POSIBLE SEPARAR Y CUANTIFICAR DISTINTAS POBLACIONES DE EXOSOMAS EN BASE A SU TAMAÑO.



El grupo de Mecánica de Fluidos de la Escuela Politécnica Superior de Mondragón Unibertsitatea (MF-GEP) y el CIC BioGUNE desarrollan conjuntamente una de las tareas del proyecto BG18, que trata de desarrollar una nueva tecnología no invasiva para aislar las diferentes poblaciones de exosomas y así mismo avanzar en el tratamiento médico personalizado.

El grupo se encuentra desarrollando una nueva tecnología en base a un microdispositivo bajo gradiente de temperatura que permita separar estas vesículas extracelulares en base a su tamaño. El desarrollo de este nuevo microdispositivo ayudaría en la reducción del tiempo necesario del proceso y además facilitaría el protocolo y las pautas utilizadas hasta la fecha para la extracción de los exosomas. Una vez desarrollada y validada la tecnología del MF-MGEP junto con el CIC BioGUNE, se aplicará dicho desarrollo directamente en fluidos biológicos. El proyecto está enmarcado dentro de la convocatoria

Elkartek 2018 del Gobierno Vasco, y finalizará en el mes de abril.

### Un proceso de desarrollo continuo

La tecnología desarrollada por el grupo de Mecánica de Fluidos de la Escuela Politécnica Superior ha sido desarrollada y validada en diferentes fases. La primera fase ha sido determinar las condiciones óptimas en cuanto a flujo másico, gradiente de temperatura, dimensiones geométricas del microdispositivo, etc. para lograr separar partículas sintéticas micro. Posteriormente en otras fases, se ha proyectado separar diferentes tamaños de partículas micro y hasta nano, logrando así definir las condiciones óptimas del microdispositivo desarrollado. Actualmente, el proceso está listo para pasar a la última fase, que es la aplicación del trabajo realizado en la extracción de exosoma, junto con el análisis numérico, se definirán las condiciones a generar para garantizar el éxito de la operación.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

## Egungo testuinguruari egokitutako metodologia garatzen

DDMRP METODOLOGIAK ZERBITZU MAILA AHALIK ETA ALTUENA BERMATZEA DU HELBURU ENPRESA BAKOITZAREN STOCK HAUEK DITUZTEN BEHARRIZANETARA EGOKITUZ. ENPRESETAKO MATERIALEN FLUXUA EGONKORTUZ HAUEK GAUR EGUN EXISTITZEN DEN ESKARI ERREALARI AURRE EGITEKO GAITASUNA GARATUKO DUTE.

Azken hamarkadetan enpresa industrialek MRP (Material Requirement Planning) metodologia izan dute oinarri materialen planifikazioa egiteko, merkatu egonkorretan aplikagarri izan dena. Globalizazioak eta teknologiaberrien garapenak ordea merkatu berrien atea ireki ditu, produktuaren eskaria eskaintza baino askoz handiagoa den errealitate bat aurkeztuz. Testuinguru honetan, MRP metodologiak lehen sintoma negatiboak aurkeztu zituen 2011. urtean, enpresek stock optimoa izateko zailtasunak aurkituz. Egoera honek ondorio negatiboak izango ditu enpresaren funtzionamenduan, gehiegizko stock-ak gainkostua suposatuz eta gutxiegi dagoenean bezeroen nahiak asetzeko gaitasun eza izanez.

### Negozia errealitate berri batera egokitzen

Material fluxua egokitzeko beharri zanak DDMRP

(Demand Driven Material Requirement Planning) metodologia berriaren diseinua izan zuen ondorio, enpresen zerbitzu maila ahalik eta altuena izatea helburu duena, stock-a eskari errealera egokitzeko gaitasuna izanik.

Mondragón Unibertsitatea 2013an hasi zen metodologia honetan formatzen, eta bertan garatutako Planner CDDP titulu propioak honi buruzko ezagutza bat dagoela ziurtatzen du. Horrez gain, DDMRP metodologiaren inguruan mundu mailan ingelesez garatu den bigarren doktore tesia Goi Eskola Politeknikoan argitaratu da, Alaitz Kortabarriak landua.

Enpresa testuinguru berria sortua dago, eta gaur egun, tendentzia honi jarraiki mundu mailako enpresa garrantzitsuak ari dira DDMRP metodologia inplementatzen, oraingoz pilotu bezala, Coca Cola eta Michelin esaterako.



# Zein da unibertsitateko ikasleen profila?

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIAN FAKULTATEAK 'ERAGIN' PROIEKTUA ABIATU DU, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKASLEEN PROFILAREN BILAKAERA AZTERTZEKO HELBURUAREKIN. UNIBERTSITATEAREN IKASLEENGAN DUEN ERAGINA NEURTZEN DA, IKASLEAREN PROFILA BERE IBILBIDE AKADEMIKOAREN HIRU UNE KONKRETUTAN AZTERTUZ. HORRELA, ERAKUNDEARI HOBEKUNTZA PROZESUAK BIDERATZEKO INFORMAZIO ESANGURATSUA ESKAINTZEN ZAIO.

Ze perfil dute Mondragon Unibertsitateko hurbiltzen diren ikasleek? Nola egin dezakegu hauen jarraipena? Galdera hauek eta beste hainbat erantzuteko asmoz *Eragin* proiektua martxan jarri da. Oinarrian, fakultate bakoitzean aplikazio propioa duen berrikuntza prozesu bat jarri zuen martxan unibertsitateak, ikasleen perfilaren definizioa, jarraipena, azterketa edo ebaluazioa egitea ahalbidetzen zuena. Gradu bakoitzaren ikuspegi tekniko harago joanez, sormena, konpromisoa edo kritika gaitasuna bezalako faktoreak aintzat hartuz ikasleen profila definitzea eta titulazioen erdigunean jartzea zen berrikuntza prozesu honen helburu nagusia. Gauzak horrela, *Eragin* osatzen duen taldeak ikasleak unibertsitateko iristen direnean daukaten profila aztertzen du, eta unibertsitate bizitzan zehar honek duen garapena jarraitu. Jarraipen hau egiteko hiru puntu estrategiko definitzen dira; ikaslea unibertsitateko iristen denean, gradu bakoitzaren kurtsoa gainditzean eta gradua bukatuta unibertsitatea uzten duenean. Humanitate eta Hezkuntza Zientzian Fakultatean aurkitzen dugu *Eragin* osatzen duen taldea, baina Mondragon Unibertsitateko gainontzeko fakultate

guztiekin elkarlanean. Profilarren jarraipena egiteko, auto-efikaziaren ikuspegi hartzen da oinarritzat. Horren arabera, unibertsitateak zehaztutako profilarren dimentsioekiko ikasleen haute-mateak dira gako. Adibidez, zer punturaino sentituko dira sortzaille edo kooperatibo? *Eragin*-ek hausnarketa hau bultzatu nahi du.

## Perfilean eragiten duten faktoreen bila

Perfil pertsonal zein profesionalaren garapenean, faktore ezberdinek eragiten dute. Badira inpaktu handiko praktikak ikasleen perfilaren garapenerako. Hori dela eta, *Eragin*-ek ikasleen profilean modu esanguratsuan eragiten duten elementuak identifikatu nahi ditu. Horregatik, hartzen ditu kontuan batetik, ikaslearen ibilbide akademikoan egon daitezkeen une esanguratsuak nazioarteko esperientzia, lankide edo ikaskideekiko harremana edo proiektu konkretu batean hartutako papera (adibidez); eta, bestetik, titulazio bakoitzak ikasleari eskaintzen diona (metodologia, tutoretza, edo ebaluazio eredu kasu). Lan horretatik, ikaslearen profilarren garapenerako gakoak identifikatu nahi dira, hortik titulazioetan berrikuntza sustatu ahal izateko.

## Garapen naturala izan duen proiektua

*Eragin*-en hastapena 2016an kokatzen da, Mondragon Unibertsitateko titulazio konkretu batean egindako froga pilotu baten baitan. Esperientzia fase ezberdinak igaro ondoren, 2018/2019 ikasturtean hasiz *Eragin* proiektua bolumen handia hartzen. Mondragon Unibertsitateko lau fakultateetan ikasle analisia orduan egin zen lehen aldiz, fakultate bakoitzak ikaslearen profilean ezartzen duen influentzia nolako den aztertzen hasiz. Hau kontuan izanik, proiektuaren gaur egungo helburua unibertsitateak ikasleengan duen eragina identifikatzea da. Ezagutza hau abiapuntu izanik, ikasleengan hau nola aberastu daitekeen eta oro har Mondragon Unibertsitateak ikasle zentro bezala nola hobetu dezakeen aztertu nahi da. Unibertsitateak ikasleengan influentzia positiboagoa bilatze aldera eszenario egokiak planteatuko dituen tresna bat bihurtu nahi da *Eragin*. Horretarako, beste unibertsitate batzuekin elkarlanean dago jada, beste errealitate batzuetako ikaslearen profilarren azterketa egin eta bertako unibertsitate esperientziak ikasleengan duen eragina identifikatzeko.



**IKASLEAK**  
Unibertsitateko ikasleak bere ikasketaren prozesuaren protagonista direlarik profil propio bat eraikitzeko gaitasuna dute.





Testuinguru unibertsitariotik harago, *Eragin* proiektua beste hezkuntza-etapa batzuetara hedatzen ari da. Zehazki, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ikasleen profilaren azterketarekin hasia da jada taldea. Kasu honetan ere, helburua da ikasleen profila aberasteko informazio esanguratsua eskaintzea etapa horietako zentroei.

#### Metodologia zehatz bat oinarri

Aurretiaz aipatu bezala ikaslearen unibertsitate bizitzaren hiru momentu konkretutan egiten dira hauen profilaren azterketak. Modu honetan, ikasleak urte hauetan bizi duen eboluzioa baloratzea posible izango da, eta eboluzio hau neurtu ahal izateko metodologia konkretu bat diseinatzen da, azterketa una konkretu bakoitzean aplikatuko dena.

Ikasleen hautemateak jasotzeko metodologia kuantitatiboaren alde egiten du *Eragin*-ek lagin handiarengana (Mondragon Unibertsitateko graduako ikasle guztiengana) heldu nahi baitu, galdetegi izanik tresna nagusia. Galdetegi hau nazioartean ikasleen

Lagin handiarengana heldu nahi due Eraginek, nazioartean erabilitako tresnetan oinarritutako galdetegi baten bidez.

profilaren dimentsio ezberdinak aztertzeko erabiltzen dituzten tresnetan oinarrituta dago. Galdetegi hauek Mondragon Unibertsitatearen testuingurura ekarriz ikasleei galdetegi hau betetzeko gonbitea luzatzen zaie, euskaraz, gazteleraz edo ingelesez egin ahal izango dutelarik. Tresna hau aipatutako hiru une konkretutan aplikatuko da, unibertsitatearen iristean, bigarren maila bukaera eta gradua bukatzean. Hala ere, laugarren

#### TALDEA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko talde bat Mondragon unibertsitateko ikasleen profila aztertzeko ari da.

mailako ikasleen kasuan galdetegi honi ibilbide akademikoan zehar jasotako zenbait datu erantsen zaizkio, inpaktuzko praktikak identifikatzeko asmoarekin.

Ikuspegi kualitatiboa gutxiago garatu da orain arte, nagusiki titulazio bakoitzetik ikasleei eskainitakoa aztertzeko. Etorkizunari begira, ikasleen profilaren azterketan sakondu nahi da metodo kualitatiboaren bidez. Ikasleek beraiek euren profilaren garapena nola baloratzen duten xehetasunez jakitea garrantzitsua da, baita garapen hau emateko titulazioak izan duen garrantzia zenbatekoa izan den neurtu ahal izatea ere. Horretarako, titulazio zehatzen batean jadanik egin bezala, gradu guztietako ikasle talde konkretuekin eztabaida talde ezberdinak egitea planteatzen da, galdetegiak ematen dituen emaitzetan sakondu ahal izateko. Modu honetan ikasle konkretu batek lau urteko ibilbidean zehar galdetegi berarekiko pertzepzioa aldatu badu, aldaketa honen arrazoiak definitzea posible izango da.

Galdetegi eta eztabaida taldeetatik orain arte ateratako datuek balio izan dute titulazioen edo campusen artean zein generoaren ikuspegitik ematen diren desberdintasunak agerian uzteko. Adibide bezala, lehen azterketa honek agerian utzi du dimentsio sortzaila edo ekintzaileari dagokionez emakumeen emaitzak baxuagoak direla eta aldiz dimentsio kooperatiboari dagozkionak altuagoak. Guzti honek titulazio bakoitzeko ikasleen sarrera profila identifikatzea ahalbidetzen dio *Eragin*-i, eta etorkizuneko azterketetan tententzia hauek mantentzekotan berrikuntza ekimen ezberdinak planteatu daitezke. Aurreko adibideari jarraiki, genero haustura mantenduko balitz, gizonengan kooperazioa eta emakumeengan sormena zein ekintzailatza sustatzeko dinamikak martxan jarri beharko lirarteke. Esan daiteke hau dela proiektuaren ideia orokorra, unibertsitate bezala Mondragon Unibertsitateak dituen hobetze esparruak identifikatu eta honen arabera hobekuntza hau bermatuko duten neurriak diseinatzea, beti ere ikasleen perfil pertsonala eta profesionala ipar nagusi dela.

## Haurraren garapen osasuntsua bultzatzeko

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO HAZITEGI TALDEAK HAUR HEZKUNTZA GRADUKO IKASLEEN EZAGUTZARAKO BALIAGARRIAK IZANGO DIREN TENDENTZIA BERRIAK IKERTZEN DIHARDU. HORRETARAKO HAURRAREN GARAPEN OSASUNTSUA DEFINITU ETA HAU AHALBIDETZEN DUTEN TESTUINGURUAK AZTERTZEN ARI DIRA, HEZKUNTZA KOMUNITATEARI EKARPENAK EGITEKO ASMOZ.



Haurraren garapen osasuntsuan familia, komunitatea eta eskola oinarrizko testuinguruak izanik, Hazitegi iker taldea batez ere eskolak garapen honetan duen garrantzia aztertzen ari da. Horretarako garapen osasuntsua zer den definitzen da, eta eskola testuinguruarekin zerikusia duten alderdiak aztertzen dituzte. Azterketa horretan ume eta irakaslearen arteko erlazioak ardatza dira, ume guztienak, bakoitza bere ezaugarriekin. Umeen beharrik aintzat hartuta, irakasleak eta eskolak egiten dioten eskaintzan jartzen da fokua, hauek proposatzen dituzten espazio, material edo denborari dagokionez.

### Garapen osasuntsua bultzatzeko bide anitzak

Haurraren garapen osasuntsua bultzatzeko hainbat bide aztertu nahi dituzte. Besteak beste aztergai izango dira Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioen nolakotasuna eta esperientzia hauek

aberasteko eraiki daitezkeen zubiak. Horrez gain, umeen esperientziazko aserakako proposamenak jorratzen ari dira eta liburu bat argitaratzeko asmoa dute. Espazioak ere arreta puntu dira iker taldearentzat eta hor daude ikastetxeetan kanpo espazioaren diseinuan prozesu parte hartzaileak sustatzen.

Bestalde, testuinguruak umearen garapena baldintzatzen duen heinean testuinguru ebaluatzea funtsezkoa dela kontuan izanda, *Hazitegi* ebaluazioaren gaineko liburu bat egiteko enkargua jaso du.

Azkenik, azpimarratzekoa da iker taldeak bi tesi ditu esku artean, biak ikuspuntu kualitatibotik burutzen ari direnak. Lehenengoak arreta jartzen dio haur irakaslearekiko sortzen duen lotura afektiboari eta irakaslearen sentikortasuna aztertzea du helburua. Bigarrenak jolasa du abiapuntu. Jolasa haur hezkuntzazko umearen ezaugarri garrantzitsuena izanik, jolasaren azterketa sakon bat burutzen ari dira.

## Irakasleen jardunean eragin, ikasleen euskararen erabilera eta kalitatea indartzeko



HUHEZI IKASTOLEN ELKARTEAREN HIZKUNTZA PROIEKTUA BERRIKUSI ETA INDARTZEKO PROZESUAN MURGILDUTA DAGO, HAINBAT IKASTOLATAN LANILDO BERRIA MARTXAN JARRI DUTELARIK. PROZESUAN ZEHAR IKASLEEN EUSKARA ERABILERA EDOTA IRAKASLEEN JARDUEREN ANALISIARIK EGINGO DIRA.

Azken bi ikasturteetan 14 ikastolatan prestakuntza-gogoetatsuan oinarritutako prozesu bat jarri da abian, Mondragon Unibertsitateko MIKER ikerketa-taldeak gidatuta, ikusteko nolabeste daitezkeen irakasleen esku-hartzea ikasleen euskararen erabilera areagotu eta kalitatez hobe dadin. Prozesu horrek lau fase nagusi ditu. Lehenengoan, irakasleek beren praktika errealean azterketa egin dute HUHEZIKo prestatzaile-ikerlariekin batera eta ikasleen euskararen erabilera eta kalitatean eragin dezaketen aldagaiak eta estrategiak identifikatu dituzte. Bigarrenean, teoriarekin kontrasteak egin ostean gelaratze berriak diseinatu dituzte, arreta berezia jarriz komunikaziorako sortzen diren guneetan eta elkarrekintza didaktikoan. Hirugarren fasean, gelaratu egin dira diseinu horiek eta bideoz jaso. Azken fasean, praktika errealean inguruko analisia keta gogoetakegin dira

eta alderdi indartsuak eta hobetzekoak identifikatzeko. Ikastolatan bi mailatan lan egin dute HUHEZIKo prestatzaile-ikerlariek: batetik, ikastoletako Hizkuntza Proiektuko arduradunak formatu dituzte euren ikastetxeetako irakasleekin prestakuntza-gogoetatsua egin dezaten; bestetik, proiektuan parte hartu duten irakasle guztiekin euskararen erabilera eta ezagutzen eragiteko gakoak landu dituzte. Prestakuntza prozesua ikergai ere bada unibertsitateko taldearentzat, eta bi helburu nagusi dituzte. Batetik, eta nagusiki, euskararen erabilera eta kalitatean eragiteko aldagaiak eta estrategiak identifikatzea irakasleekin batera, eta ikaslearen aniztasun linguistikoa irerantzuteko bideak pentsatzea; bestetik, prestakuntza-gogoetatsua eredu sakontzea eta balioztatzea hainbat ikastetxetan aldi berean eragin ahal izateko estrategiak.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

## Pertsona kooperatiboaren profila neurtzeko tresna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IKERKETA TALDE BATEK KOOPHEZI-L HERRAMINTA GARATU DU. LAN TESTUINGURUETAN PERTSONA KOOPERATIBOAREN PROFILA NEURTZEKO ZIENTIFIKOKI BALIDATUTAKO TRESNA HONEK PERTSONEN HAUTEMATEAN DU OINARRIA, ETA ERAKUNDEEN KULTURA KOOPERATIBO NEURTZEKO BALIO IZANGO DU.



Nola neurtu daiteke pertsonen arteko lankidetzaren erakundeetan? Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko lantalde batek aldagai hau aztertzeko tresna propio bat garatu du. Horretarako, pertsonen autopertzepzioan oinarria jarri hiru mailatan sailkatuak dauden dimentsioak neurtzen dira: norbanakoan, erlazionalean eta maila komunitarioan. Modu honetan, balioak, jarrerak eta kompetentziak aztertuz pertsona kooperatiboaren profila garatzea posible izango da, erakundeen kultura kooperatiboa neurtu eta bultzatu ahal izateko balioko duen tresna bihurtuz. Ikerketa hau modu kuantitatiboan egin da, horretarako zientifikoki balidatua izan den tresna bat garatuz. Bertan profil kooperatiborako aldagai berriak kontuan hartzen dira eta pilotu moduan 500 galdetegi burutu dira zazpi erakunde ezberdinetan.

### Lehen emaitzak bistaratu

Koophezi-L tresnak lehen emaitzak bistaratu ditu, honen arabera profil kooperatiboa pertsonak lanpostu konkretu baten daraman denboraren arabera aldatzen delarik. Has tapeneko emaitza hauen arabera lanpostu batean zenbat eta denbora gehiago eraman, lankidetzarako tendentzia apalduz doa, hau are nabarmenagoa izanik ekintza errepikakor asko duten lanpostuetan. Bestalde, lantaldeen erantzukizuna duten pertsonak lankidetzari mailari eusten diote, norberaren eta taldearen helburuak betetzeko lankidetzari bultzatu eta mantentzeko beharrezkoa duten estrategiak bilatuz. Horrez gain, profil kooperatiboarekin eta beste zenbait aldagai interesgarriekin korrelazio positiboak eta esanguratsuak aurkitu dira, nabarmentzeko adar zuzeneko arduradunarekiko sentitzen den konfiantzarekin ezartzen den erlazioa positiboa.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA



## 'Wikipedia'aren bitartez ezagutza garatzen

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO KOLABORATEGIAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO PLAN ESTRATEGIKOAN IDENTIFIKATUTAKO KONTZEPTUAK GAZTERIAREKIN LANDU DITU. 'WIKIPEDIA' TRESNA PEDAGOGIKO BEZALA ERABILIZ, GIPUZKOAKO IKASTETXEETAKO IKASLEEK BERAIEK EZAGUTZA GARATU AHAL IZAN DUTE.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, *Etorkizuna Eraikiz* markoaren baitan identifikatutako 13 kontzeptugakoak Gipuzkoako gazteek nola ulertzen dituzten ezagutzeko helburuarekin, KoLaborategiarekin elkarlana abiatu du. Horretarako, Gipuzkoako 12 ikastetxetako -publikoak zein itunpekoak- DBH 4. mailako ikasleekin kontzeptu hauek guztiak landu dira: berdintasuna, ekonomia, elektromugikortasuna, euskara, gobernantza, hezkuntza, klima aldaketa, kohesio soziala, kontziliazioa, mugikortasuna, partaidetza, zahartzea eta zibersegurtasuna. Guztira parte hartu duten 275 ikasleak taldeka antolatu eta talde bakoitzak kontzeptu horietako bi landu ditu, ziurtatuz ikastetxe guztietan landu direla 13 kontzeptuak. Hala, ikasle-talde bakoitzak egokitutako kontzeptuen definizioak proposatu ditu, haien aurrezagutzetarik abiatuta eta hainbat iturritako informazioa taldean landuta.

